

DONOSTIAKO UDALA

**2018. urteko aurrekontua
erabiltzeko araudia**

Donostiako Udala



**Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián**

**Programakuntza, azterlanak eta aurrekontuak
Programación, estudios y presupuestos**



Aurkibidea

I. TITULUA: ARAU OROKORRAK ETA KREDITUA ALDATZEA	5
I. KAPITULUA: ARAU OROKORRAK	5
1. Artikulua: Iraupena	5
2. Artikulua: Esparrua	5
3. Artikulua: Aurrekontu kredituak	5
4. Artikulua: Aurrekontu nagusia	5
5. Artikulua: Aurrekontu egitura	6
6. Artikulua: Kredituen lotura juridikoak	6
II. KAPITULUA: KREDITU ALDAKETAK	7
7. Artikulua: Kreditu aldaketak	7
8. Artikulua: Kreditu transferentziak	8
9. Artikulua: Kreditua sortzea sarreraren bidez edo kredituak gaituta	9
10. Artikulua: Kredituak hedatzea	9
11. Artikulua: Ohiz kanpoko kredituak eta kreditu gehigarriak edo kreditu osagarriak	10
12. Artikulua: Kreditu hondarrak barne hartzea	11
13. Artikulua.- Kredituak jaistea	12
II. TITULUA: GASTUEN GAINEAN	13
I. KAPITULUA: ARAU NAGUSIAK	13
14. Artikulua: Aurrekontu urtealdia	13
15. Artikulua: Gastu gestioaren faseak	13
II. KAPITULUA: AURREKONTU GESTIOA	13
16. Artikulua: kreditu ez-erabilgarriak	13
17. Artikulua: gastuak baimentzea	14
18. Artikulua: Gastuak erabiltzea	15
19. Artikulua: Obligazioak onartzea	15



20. Artikulua: Ordaintzeko agintzea 16

21. Artikulua: Ordain mota guztietarako irizpide orokorra 16

III. KAPITULUA: ADMINISTRAZIO PROZEDURA 17

22. Artikulua: Langile gastuak 17

23. Artikulua: Dirulaguntzak eta transferentziak 18

24. Artikulua: Inbertsioak 20

IV. KAPITULUA: JUSTIFIKATU BEHARREKO ORDAINAK, KUTXA FINKOAREN AURRERAKINAK ETA AURRETIKO ORDAIN APLIKATU GABEAK 21

25. Artikulua: Justifikatu beharreko ordainak 21

26. Artikulua: Kutxa finkoaren aurrerakinak 22

27. Artikulua: Aurretiko ordain aplikatu gabeak 22

V. KAPITULUA: OBLIGAZIOAK IRAUNGITZEA 23

28. Artikulua: Obligazioak iraungitzea 23

III. TITULUA: SARRERENA 24

29. Artikulua: Udal Diruzaintza Publikoa 24

30. Artikulua: Diruzaintza plana 24

31. Artikulua: Diru sarreraren gestio faseak 24

32. Artikulua: Dirua sartzeko konpromisoa 25

33. Artikulua: Eskubideak aitortzea 25

34. Artikulua: Onartutako eskubideak ordaintzea 25

35. Artikulua: Kreditu eragiketak eta bermeak emateko mugak 26

36. Artikulua: Berandutza interesak eta lehentasunezko interesak 27

37. Artikulua: Diru sarrerak kontabilizatzea 27

IV. TITULUA:AURREKONTUA LIKIDATZEA 29

38. Artikulua: Gastuen egoerako aurretiko eragiketak 29

39. Artikulua: Sarreraren egoerako aurretiko eragiketak 29

40. Artikulua: Ekitaldia likidatzea 29



41. Artikulua: Diruzaintzako soberakina 30

V. TITULUA. PLANTILLA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA 31

42. Artikulua: Edukia, eskumena eta mugak 31

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA: SENDOTU BEHARREKO KONTUAK 32

**BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA: AKORDIOAK EDO HITZARMENAK
LEHIAKETA PROZEDURETAN 33**

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA: INFORMAZIOA 34

AZKEN XEDAPENA 35



I. TITULUA: ARAU OROKORRAK ETA KREDITUA ALDATZEA

I. KAPITULUA: ARAU OROKORRAK

1. Artikulua: Iraupena

Arauak aurrekontuak beste iraungo du eta honen indarraldia luzatuko balitz, arauak luzapenean ere izango ditu ondorioak.

2. Artikulua: Esparrua

Araua indarrekoa da Donostiako Udaleko aurrekontua erabiltzerakoan.

3. Artikulua: Aurrekontu kredituak

Gastuen Egoeran zehazturiko kantitateak mugarri dira aurrekontuaren indarraldiarekiko eta lotesleak aurrekontu egiturarekiko zein honako arau honek xedatzen dituen lotura juridikoen mailekiko. Kredituak aurrekontura biltzeak ez du inongo eskubiderik sortzen.

Oro har, soilik beregana daitezke obligazioak urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte baimenduriko gastuak direla eta, legeek onartutako salbuespenak salbuespen.

4. Artikulua: Kredituen lotura juridikoak

Ezingo da gastu konpromisorik hartu gastuen egoeran onartutako kredituak gaindituz gero, horrelakoak mugatzaile baitira ondorengo lotura mailan:

- » *LANGILEEN ORDAINSARIAK*: Kapitulum, honako programa hau izan ezik: Ekonomi Garapena eta Enplegua: Zuzendaritza eta Administrazioa.
- » *GASTUAK ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN*: Programa eta Kapitulum.

Hiriko Hondakin Solidoen Bilketa, Hondakinen Kudeaketa: San Marko eta Hondakinen tratatzea: San Marko programak, programa talde mailako lotura izango dute.



Ura eta Saneamendua: Zuzendaritza eta Administrazioa, Ura, Uraren hornikuntza: Añarbe, Saneamendua eta Saneamendu arazketa: Añarbe programak gastu politika mailako lotura izango dute.

- » *INTERESAK ETA FINANTZA-PASIBOAK*: Programa eta Kapitulua.
- » *TRANSFERENTZIA ETA DIRULAGUNTZA ARRUNTAK ZEIN KAPITALEKOAK*: Programa eta Kontzeptua.
- » *INBERTSIOAK ETA FINANTZA AKTIBOAK*: Programa eta artikulua.

Ekonomi Garapena eta Enplegua: Zuzendaritza eta Administrazioa Programa mailan lotuko da.

II. KAPITULUA: KREDITU ALDAKETAK

5. Artikulua: Kreditu aldaketak

Lotura juridikoa gainditzen duen gasturik egin nahi izanez gero, kreditua aldatzeko espedienteak izapidetu beharko da, kapitulu honetan xedaturikoak estu-estu beteta.

Ezein kreditu aldatu ahal izateko, zergatik aldatu nahi den funtsatu beharko da, baita azaldu ere aldaketa horrek nolako eragina izango duen aurrekontua gauzatzekoan xedaturiko helburuak lortzeari begira.

Kreditua aldatzeko espediente guztien gainean eman beharko du iritzia Udal Interbentzioak, eta hurrenkeran zenbakitu beharko ditu Kontu Nagusian justifikatzekotan.

Kreditu aldaketatzat barik, kontularitza doitzetzat joko da Lotura Juridikozko Poltsa batean aurrekontu sail bat sortzea, zenbatekoa aldatzen ez dela, gastu eginari buruz argibide gehiago eskaintzen badu.

Era berean, badago aukera 6, 7 eta 8. kapituluetan kontu-sailak eratzeko ere, Aurrekontuan aurreikusitako eran ez beste batean egiteko ekintzak, nahiz eta helburu berberarekin, eta, betiere, Aurrekontuko kreditu transferentzien bidez hornituta kontu-sail horiek.

“Udalaren lurzoru ondarearen gastuak” atalean sartutako inbertsio gastuak, aipatutako ondareari lotutako sarrerak eta era berean beste sarrera batzuek finantzaten duten aipatutako ondareari lotutako inbertsioak baino handiagoak dira, eta gehiegizko egoera hau mantentzen den



bitartean, udalaren lorszuru ondareari lotutako edozein igoerak kreditua libratuko du eta berau udalaren lurzoru ondareari lotu gabeko inbertsiontara zuzen daiteke..

6. Artikulua: Kreditu transferentziak

Gastu bat egin nahi izanez gero hasierako kreditua behar bestekoa ez dela, baina kreditua lor badaiteke lotura juridiko desberdineko beste kontu sail batzuetatik gastuen egoerako osoko zenbatekoa aldatu gabe, kreditua transferitzeko espediente onartuko da.

Udalaren Lurzoru Ondarearen barne dauden jardueren baliabideak gainditzeko dituzten bitartean, posible izango da kredituak transferitzea jarduera horietatik sartuta dauden beste batzuetara edo baita Udalaren Lurzoru Ondarearen barne sartuta ez dauden beste batzuetara ere.

Alorreko ordezkariari dagokio programa barneko honako transferentzia hauek onartzea:

- a) 1. kapitulutik 2. kapitulara, justifikatutako kasuetan.
- b) 2. Kapituluako kontzeptuetatik 1., 4., 6., 7. eta 8. kapituluetakoa beste kontzeptuetarakoak.
- c) 4. kapituluako kontzeptuetatik 2., 4., 6., 7. eta 8. kapituluetakoa beste kontzeptuetarakoak.
- d) Transferentziak, halaber, 6, 7 eta 8. kapituluetakoa kontzeptuen artean, kredituaren helburua errespetatuz gero behintzat.

Ogasuneko Ordezkariak honako transferentzia hauek egin ditzake:

- a) Kreditu Orokorretikoak edo Aurrekontu Erabilerako Gertakizun Funtsetikoak.
- b) 1. kapituluako kontzeptuetatik 1., 2., 3., 4., 6., 7., eta 9. kapituluetakoa kontzeptuetarakoak.
- c) Programen artean egindakoak proiektu bat hainbat programatik finantzatzearen ondorioz.
- d) 3. eta 9. kapituluetakoa kontzeptuen arteko transferentziak eta kapitulu hauetako kontzeptuetatik beste kapituluetakoa kontzeptuetarakoak.

Tokiko Gobernu Batzordeak bere esku izango ditu hurrengo transferentziak, funtzio sailkapenean egindako lehen ataltzearen ondorioz:

- a) 2. kapituluako kontzeptuetatik 1., 2., 4., 6., 7. eta 8. kapituluetakoa kontzeptuetarakoak.
- b) 4. kapituluako kontzeptuetatik 1., 2., 4., 6., 7. eta 8. kapituluetakoa kontzeptuetarakoak.
- c) 6., 7. eta 8. kapituluetakoa kontzeptuen arteko eskualdaketak.



Espedientea abiaraziko du Finantza Zuzendaritzak eta eragindako ordezkarien ontzat emanak ez ezik, Udal Interbentzioaren nahitaezko txostena ere eraman beharko du.

Transferentziak onartzeko unetik bertatik bete beharko dira.

Transferentzia baten onarpena Udalbatzari ez badagokio, Ogasuneko Informazio Batzordeari emango zaio hura onartu izanaren berri, Kontu-hartzailetzaren bidez.

7. Artikulua: Kreditua sortzea sarreren bidez edo kredituak gaituta

Gastuen egoeran kreditu-sortzaile izan daitezke honako sarrera hauek:

- Pertsona fisikoen eta juridikoen ekarpenak edo ekarpen konpromisoak, Udalarekin batera honen eskumeneko gastuak ordaintzekoak.
- Ondare ondasunak besterentzea: aurreikusi gabeko hirigintza aprobetxamenduak eta egiten ari diren aparkaleku publikoak.
- Zerbitzuak ematea.
- Maileguak berreskuratzea.

Ogasuneko Ordezkariak baimendu beharko du sarrerengatiko kreditu sorrera.

Finantza Zuzendaritzak ekingo dio espedienteari, eta Ogasuneko Informazio Batzordeari emango zaio onartu izanaren berri.

8. Artikulua: Kredituak hedatzea

Sarrera handiagoak lortuz gero, besterik gabe hedatzekotzat jotzen dira honako hauek:

Besteren ordezkari egindakoengatiko sarrerak	→ Norbanako edo entitateei eskatu beharreko besteren ordezkari ekintzetarako kreditua.
Etxeko Laguntza Zerbitzuan sarrera handiagoak	→ Etxeko Laguntza Zerbitzua emateko kreditua
Garabi Zerbitzua emateagatiko sarrerak	→ Garabi Zerbitzua emateko kreditua
Aseguru etxeen kalte ordainak	→ Konpondu eta zaindu lanak egiteko kreditua
TAO	→ Zerbitzuak sortutako gastuetarako kreditua
Eusko Jaurlaritzak Sute Zerbitzurako emandako dirulaguntza	→ Materiala erosteko kreditua
Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza, bide heziketarako	→ Bide Heziketa
INSERSO-FEMPen dirulaguntza, autobusak erosteko	→ Autobusak erosteko ekintzak egitea
Beste dirulaguntza batzuk, ekintza jakin batzuetarako	→ Dirulaguntzak jasotzeko moduko ekintzak kudeatzen dituzten programen kredituak
Pobreziaren Aurkako Planean sarrera handiagoak	→ Pobreziaren Aurkako Planeko dirulaguntzetarako kreditua



Eusko jaurlaritzarekin izenpeturiko ikastetxe hitzarmena	→ Ikastetxeak hobetzeko kreditua. Isunen kudeaketarako kreditua
Isunak	→ Izandako Ohiko eta Kapital Sarrerak gehiago
Zabalgarri bezala izendatutako partidak del Ayuntamiento	→ Udalaren alde Epaitegiko Kostuak. Udalaren aurka Epaitegiko Kostuak

Interbentzio Nagusiak baldintzak betetzen direla egiaztatu ostean kreditu aldaketa kontabilizatu da eta Ogasuneko Informazio Batzordeari izanaren berri emango zaio.

Kreditu Orokorra edo Aurrekontu Erabilerako Gertakizun Funtsa ere gehitzeko modukotzat jotzen da sarrera tributarioetan eskubide onartu gehiago izan da eta.

Espedientea Finantza Zuzendaritzak abiaraziko du.

Alkateak onartuko du espedientea, eta Ogasuneko Informazio Batzordeari emango zaio hura onartu izanaren berri, dela kreditu orokorra erabiltzeko espedientearen bidez, dela Aurrekontua erabiltzeko kontingentzietarako funtsaren bidez, zein izapidetzen den.

9. Artikulua: Ohiz kanpoko kredituak eta kreditu gehigarriak edo kreditu osagarriak

Ekitaldian egin behar izanez gero hurrengo ekitaldirako atzera ezineko gasturen bat horretarako aurrekontu krediturik ez dagoela, ohiz kanpoko kreditua onar liteke.

Kreditua badago baina nahikoa ez bada eta hedatzekoa ez bada, kreditu osagarri bat onartu ahal izango da:

- » Diruzaintzako soberakin likidoa.
- » Aurrekontuak xedaturikoak baino likidatutako sarrera handiagoak edo sarrera berriak bildu izana.
- » Kreditu konprometitu gabeak bertan behera uztea edo murriztea, programaren helburuak aldatu gabe murriztu ahal izanez gero.

Espedientea Finantza Zuzendaritzak bideratuko du eta ordezkarien ontzat emanak ez ezik, Udal Interbentzioaren nahitazeko txostena ere eraman beharko du.

Kredituek bete beharko dituzte aurrekontuaren administrazio izapide berak.

Alkateari dagokio bi baldintza hauek betetzen dituzten kreditu gehigarriak onartzea: denek batera Aurrekontuaren % 3 ez gainditzea eta ez finantzatzea ez kapital eragiketen aurrekontu kredituak deuseztatuta, ez eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuei



buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan (34. artikulua bigarren ataleko hirugarren paragrafoan) aipatzen diren kreditu eragiketen bidez.

Aparteko kasu horretarako, ez dira aplikatuko Aurrekontu Orokorren informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsio arauak.

Ogasuneko Informazio Batzordeari onartutako aldaketen berri emango zaio.

10. Artikulua: Kreditu hondarrak barne hartzea

Aurrekontua likidatuta, Udal Interbentzioak honako hauek jasoko ditu egoera txosten batera:

- a) Gastu erabilgarrien saldoak, obligazioa onarturik ez dutenena.
- b) Aurreko ekitaldietan onartutako konpromisoak finantzatzeko gastu baimenen eta kreditu erabilgarrien saldoak.
- c) 6., 7. eta 8. kapituluetakoa kredituen saldoak.
- d) Sarrera eragindakoek bermatutako kredituen saldoak, derrigorrez jaso beharrekoak baitira.

Programaren teknikari arduradunek txostena egin beharko dute proposamenaren gainean, kreditu hondarrak jasotzeko proposamen funtsatua egin dezaten, ekitaldian gauzatuko delako ziurtasuna egiaztatuta.

Kreditu hondarren jasotze hori finantzatzeko behar beste finantza baliabide izanez gero jatorrizko ekitaldian, Alkateak onartuko du kreditu jasotzea aurrekontuaren likidazioarekin batera, Ogasuneko Ordezkariek aurretik onartuz gero.

Jatorrizko ekitaldian eta indarrekoan finantza baliabiderik izan ezean, Ogasuneko Ordezkariek, Udal Interbentzioaren txostena jaso ondoren, lehentasunak ezarriko ditu aurrekontuan jaso beharreko esku-hartzeetan, aurreko ekitaldiko konpromisoen arabera.

Erantsitako horiek beste diru sarrera batzuk, edo diru sarrera handiagoak, behar badituzte indarrean den ekitaldikoak, edota indarren den ekitaldiko gastu batzuk murriztu badaitezke, Tokiko Gobernu Batzordearen esku izango da onarpena. Onarpen horiek onartzeaz bat izango dira indarrean.

Kreditu hondarrak aurrekontuan jaso daitezke hori likidatu aurretik honelakoren bat izanez gero:



- a) Sarrera espezifikoekin finantzaturako kredituak.
- b) Aurreko ekitaldian esleitutako kontratuak edo presazko gastuak, Interbentzioak segurtatzen badu ez dutela defizit sortuko.

11. Artikulua.- Kredituak jaistea

Ogasuneko Ordezkariek kredituak jaisteko eska diezaioke Tokiko Gobernu Batzordeari honako hauetakoren bat gertatuz gero:

- a) Aurreko ekitaldia likidatuta, kutzako soberakina negatiboa zianez gero.
- b) Sarreraren aurrekontua gauzatzera, zenbateko nagusiak, oinarrian, hasieran begiz jotako oso desberdinak izatekotan.



II. TITULUA: GASTUEN GAINEAN

I. KAPITULUA: ARAU NAGUSIAK

12. Artikulua: Aurrekontu urtealdia

Gastuen egoerako kredituen zordun soilik kontabilizatuko dira ekitaldian egiten diren gastuetatik obligazioak.

Salbuespenez, indarreko aurrekontuan honako obligazio hauek aplikatuko dira:

- a) Langileen atzerakinak.
- b) Jasotako kreditu hondarrak.
- c) Aurreko ekitaldietako gastuak, horiek egitea lehendik onartuta ez dagoela. Horrelakoetan, indarreko aurrekontua erabiltzeko programaren teknikari arduradunak txostena aurkeztu beharko du segurtatzeko hori egitekotan ez zaiela kalterik edo murrizketarik egingo ekitaldiko betebeharrei.

13. Artikulua: Gastu gestioaren faseak

Gastu aurrekontua honako aldi hauek erabilia gestionatuko da:

- a) Gastua baimentzea.
- b) Gastua erabiltzea.
- c) Obligazioa onartzea.
- d) Ordaintzeko agintzea.

II. KAPITULUA: AURREKONTU GESTIOA

14. Artikulua: kreditu ez-erabilgarriak

Aurrekontua erabiltzerakoan oreka ekonomiko-finantzarioa arriskuan jar dezakeenik gertatuz gero, Ogasuneko Ordezkarriak, alorretako ordezkariekin batera, kreditu batzuk izan ditzake ez-erabilgarri. Ordezkarri berak izango du eskua halako kredituak berriro erabilgarri bihurtzeko.



Aurrekontu-ekitaldian finantza-oreka mantentzen dela ziurtatzeko, eta, dagokien espedientearen bidez, inbertsioen exekuzioa martxan jarri baino lehen, beharrezkoa izango da Ogasuneko ordezkariak adierazpen idatzi bat egitea, inbertsiorako baimena emateko edo inbertsioa atzeratzeko, kontutan hartuta aurrekontu-ekitaldian sarrerek eta gastuek, arruntek eta kapitalekoek, benetan bilakaera orekatua izan duten ala ez.

15. Artikulua: gastuak baimentzea

Gastua baimentzea da halako gastua egitea baimentzen duen ekintza, zenbateko jakin edo uztezko baten arabera eta ordain kreditu edo konpromiso kreditu jakin batean zorduntzekoa.

Aurrekontu Orokorra osatzen duten Entitateei egin beharreko ekarpenak jaso ahal izateko, eskaera egon beharko da eta Kontu-Hartzailletza Nagusiak egiaztatu beharko du diru beharra.

Maileguren amortizazio eta interes gastuak fase guztietan kontabilizatu beharko dira, beste tramiterik gabe, behin kontu korrontean kargatuta eta Kontu-Hartzailletza Nagusiak egiaztatutak.

Programaren teknikari arduradunak onartu beharko ditu honako gastu baimentze hauek:

- a) Funtzionamendu gastu arruntak, 6.010,12 Euro gainditu gabe.
- b) 12.020,25 Eurotako aurrekontua gainditzen ez duten lanak.

Horrelako gastu baimenak honela izapidetuko dira:

- » Arduraduna harremanetan jarriko da saltzailearekin zenbatekoaren berri izateko, eta “eros agiria” guztiz beteko du.
- » Kontularitzak txostena emango du kreditua dela adierazteko eta horrek gastua baimentzeko fasea amaituko du.
- » Programaren teknikari arduradunak ontzat emandako faktura behar besteko dokumentua izango da ordaintzeko agintzeari ekiteko.

Ordezkariek honako gastua hauek baimenduko dituzte:

- a) Gainontzeko obra, hornidura eta zerbitzu kontratu txikietan.
- b) Aurrekontuak berariaz xedatutako dirulaguntza izendunak.

Ogasuneko Ordezkarien ardura da honako gastu hauek baimentzea:

- a) Langileen ordainak.

Tokiko Gobernu Batzordearen ardura da honako gastu hauek baimentzea:



- a) Aurrekontuak eta bere aldaketek aurreikusitako lanak, hornigaiak, adituen txostenak, laguntza eta zerbitzuak kontratatzea. Barne egongo dira urte askotarikoak.
- b) Aurrekontuak eta bere aldaketek aurreikusitako Ondasunak eta eskubideak erostea eta saltzea.
- c) Aurrekontuak oro har aurretik xedaturiko dirulaguntzak.
- d) Legeak Udalbatzari bereziki egokitzen es dion beste gastuak.

Oro har, espedientea abiarazi beharko da gastua baimentzeko, kontabilitateko “A” dokumentua erantsita.

16. Artikulua: Gastuak erabiltzea

Gastua erabiltzeko ekintzaren bitartez halako gastu jakin bat gauzatzen da benetan, arauzko lege izapideak beteta, zenbateko eta baldintza zehatz zehaztutakoetan, onuradun edo esleipendun baten alde.

Gastua baimentzen duen organo bera izango da eskuduna hau ere onartzerakoan.

Oro har, espedientea abiarazi beharko da gastu erabiltzeko, kontabilitateko “D” dokumentua erantsita.

Espedienteari ekiterakoan zenbatekoa eta jasotzailearen izena zehatz jakinez gero, kontabilitateko faseak bateratuko dira “AD” dokumentuaren bitartez.

17. Artikulua: Obligazioak onartzea

Obligazioa onartzeko ekintzaren bitartez Administrazioari halako kreditu bat exiji dakioke behar bezala egiaztatu delako kreditu erabileraren xedeko prestazioa.

Hori onartzeko organo eskuduna izango da gastua baimendu duen berbera, kontratazio gaietan izan ezik, horrelakoetan ordezkarien eskuduntza izango baitira, txikiagotzat jotako lanen likidazioak salbu.

Espedientea abiarazi beharko da obligazioak onartu ahal izateko, eta kontabilitateko “O” dokumentua eraman beharko du erantsita.

Gastuaren ezaugarriak direla eta, obligazioa baimentzea, erabiltzea eta onartzea aldi berean gertatuz gero, kontabilitateko “ADO” dokumentua erantsiko da.



18. Artikulua: Ordaintzeko agintzea

Ordaintzeko agintzea esaten zaio onartutako obligazioa ordaintzeko Diruzaintzak emandako aginduari.

Ogasuneko Ordezkaría izango da organo eskuduna.

Fase horretan kontabilitateko “ME” dokumentua erabiliko da.

Oro har, ordain agindua gauzatuko da Udal Interbentzioak eginiko ordain aginduen zerrenda oinarri.

19. Artikulua: Ordain mota guztietarako irizpide orokorra

Arau orokor moduan, ordain guztiak egingo ditu Udal Diruzaintzak, zorren antzintasuna dela irizpidea ordaintzeko lehentasunak erabakitzerakoan.

Horrelako bideak erabiliko dira ordaintzeko:

- a) **Transferentzia.** Horixe izango da ordainbide ohikoa. Transferentziak sartuko dira hirugarrenak adierazitako banku kontuan eta hiru sinadura baimendunak —alkatea, kontu-hartzailea eta diruzaina (titularrak edo ordezkioak)— eramango ditu. Transferentziak onartzeko zerrendak bankua, kontu zenbakia eta eguna aipatu beharko ditu gutxienez.
- b) **Txekea.** Ohiz kanpoko ordainbidea da. Izendunak izango dira eta hiru sinadura baimendunak izango dituzte.
- c) **Esku dirua.** Oso ohiz kanpoko ordainbidea da, ordain txiki eta presazkoetarakoa. Jasotzaileak bere nortasuna egiaztatu beharko du, eta pertsona juridikoa izatekotan, kobratzeko ahalmena.

Ordainak jasoko dituzte aldeko obligazioaren onuradun diren pertsona fisiko edo juridikoek, kreditu lagapenak edo organo judizial edo administratiboek agindutako bahiturak izan ezean.

Salbuespen moduan, honela ere ordain daiteke:

- a) Kontuan sartzea. Bankuan helbideratzeko agindua dagoenetan erabiltzekoa: Elkarkidetzak, finantza zama eta abar.
- b) Kreditu txartela. Ibilgailuetarako erregaia, autopistako bidesaria eta abarretan erabiltzekoa.



Ziurtapenak edo fakturak kobratzeko eskubideak lagatzea

- a) Horrelako aukera araututa dago urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratu Legean 201. artikuluan.
- b) Lagatzaileak epea gainditutako zor ordaindu gaberik izanez gero udalarekiko, lagapena egingo da hirugarrenari jasotzea dagokion kantitatetik udalarekiko zorrera arteko zenbatekoaren gainean.
- c) Lagapena fede emanda jakinarazi beharko zaio Udal Interbentzioari eta ondorioak izango ditu jakinarazpena jasotzen den unetik.
- d) Ez da lagapen orokorrik onartuko kontratu oso baterako, ezta etorkizunerako lagapenik ere. Lagapena egin beharko da egiaztapen edo faktura jakin bakoitzerako.
- e) Lagapen dokumentuaz oharremateko organo eskuduna izango da kontu-hartzaile nagusia edo horrek ordezkari izendaturiko interbentzioko funtzionarioa. Oharremateko ekintzak barneko ekintza hutsa da eta lagapena onartzen dela adieraztea baino ez da.
- f) Ziurtapen edo faktura beraren bi lagapen adierazpen edo gehiago aurkeztuz gero, zenbatekoa gainditzen dutela, lagapenak onartuko dira Udal Interbentziora sartutako hurrenkeraren arabera.
- g) Lagapen dokumentua presta daiteke merkataritzaren artekaria, udaleko idazkari nagusia edo udaleko kontu-hartzaile nagusia aurrean dela. Idazkariaren edo kontu-hartzailearen aurrean eginez gero, ordezkari edo ahalmena notario dokumentuz egiaztatu beharko da.

Kredituak organo judicialak edo administratiboak bahitzea

Horrelakoetan ordain agindua organo bahitzailearen alde emango du udalak, bahitua nor den adierazita.

III. KAPITULUA: ADMINISTRAZIO PROZEDURA

20. Artikulua: Langile gastuak

Hilabeteko nominak izango dira hileroko ADO dokumentuaren euskarria.



Gizarte Segurantzari eta Elkarkidetzari ordainduriko kuotak ere, halaber, hileroko ADO kontabilitate dokumentuaren funts euskarria.

Udal langileei zerbitzuagatik emandako sariak araudi berezi batek arautzen ditu eta, ezargarri izanez gero, Alkatetzak 1999.eko azaroaren 15ean emandako zirkularrak, alkatearentzako eta zinegotzien ordezkarienezako zerbitzua dela-eta eman beharreko sari eta ordainak arautzen ditu eta.

Udal taldeentzako sariak arautzen ditu toki araubidearen oinarrien Legea eta hori garatzeko arauak aldatzen dituen apirilaren 21eko 11/1999 Legeak.

21. Artikulua: Dirulaguntzak eta transferentziak

- 1) Udalak diru laguntzak eman ahal izango dizkie, Gastuen Egoerako 4. eta 7. kapituluetakoa kredituen kontura, erakunde publiko nahiz pribatuei, bai eta partikularrei ere, baldin eta onura publikoko, gizarte intereseko edo xede publikoa sustatzeko jarduerak egiten badituzte.
- 2) Udalak ematen dituen diru laguntzek honako lege-arauetan xedatutakoa bete beharko dute: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 18koa, Diru Laguntzena; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru Laguntzen Lege Orokorren Araudia onartzekoa, eta kasuan kasuko diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak.
- 3) Diru laguntzak emateko prozedura arrunta konkurrentzia lehiakor araubidean izapidetuko da.

Honako diru laguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira. Hitzarmenen bidez bideratu ahal izango dira, eta hitzarmen bakoitzean ezarriko dira aplikatu beharreko baldintza eta konpromisoak:

- » aurrekontuan berariaz xedatutako diru laguntza izendunak
 - » lege mailako arau batek inposatuak
 - » diru laguntza horien interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa frogatuta badago, edo deialdi publikoan ateratzea zail egiten duten beste arrazoi batzuk badaude, behar bezala egiaztatuta
- 4) Udalak transferentziak eta kapital ekarpenak egin ahal izango dizkie erakunde autonomoei, enpresa erakunde publikoei, sozietateei eta Udalaren partaidetza duten



gainerako erakundeei, bai beren jarduera orokorrafinantzatzeko erabiltzen badituzte bai esleituta dituzten eginkizunen barruan ekintza jakin batzuk egiteko behar badituzte.

- 5) Gastuaren kudeaketaz arduratzen den zerbitzuak izapidetuko ditu diru laguntzak emateko, itzultzeko, deuseztatzeko eta atzera egiteko espedienteak. Zerbitzu horrek, bestalde, ziurtagiriak eskatu eta egiaztatu beharko ditu, diru laguntza ematean eskatutako inolako betekizunik bete gabe utzi ez dela begiratu eta, organo izapidegileak alderdi horiek ziurtatzeko egiaztatzea eman eta gero, justifikazioa onartzea proposatu. Justifikazioa onartzeko organo eskudunak diru laguntzak eman zituen organo bera izango da, eskuordetzeak gorabehera.

Kontu-hartzailtza Nagusiak, bere ikuskatze lana betez, honakoak kontrolatuko ditu: deialdiaren oinarriak, emateko proposamenak, justifikazioaren onarpenak, bai eta diru laguntzak itzuli, deuseztatu eta atzera egiteko proposamenak ere, halakorik bada.

Diru laguntzak ez dira inola ere emango edo ordainduko pertsona nahiz erakunde onuradunak ez badituzte beren zerga betebeharrak (Zerga Administrazioako Estatu Agentzia, Foru Ogasuna eta Udal Ogasuneta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuta, ez eta Donostiako Udalarekin edo haren mendeko erakunderen batekin egindako zorreatatik behartze bidez kobratzeko prozeduretan sartuta badaude ere, harik eta zor horiek egiaz ordaintzen eta kitatzen edo betetzen diren arte, salbu eta zor horiek geroratuta edo zatikatuta badaude, edo haien betearaztea etenda badago.

Epez kanpoko zorrak, likidatuak eta galdagarriak konpentsazio-prozeduraz ordainduko dira.

- 6) Ekitaldi bakoitzaren hasieran, gastua onartu eta xedatzeko izapidea egingo da. Gastu horren zenbatekoa udal erakundeei egin beharreko transferentzia eta ekarpenei lotutako konpromisoak erregistratzeko aurrekontuan jasotako adina izango da. Justifikazioa urteko kontuak aurkeztearekin batera egingo da. Enpresa erakunde publikoek eta sozietateek, kontuekin batera, auditoretza txostena ere aurkeztu beharko dute.

Transferentzia arruntak badira, erakunde bakoitzarekin adostutako maiztasunarekin, obligazioaren aitortpena izapidetuko da, kasuankasuko aldiari dagokion proportziozko zatian.

Transferentziak eta kapital ekarpenak aurrerakin itzulgarritzat joko dira, baldin eta denak edo haien zati bat ez badira beharrezkoak gastu eta sarreren oreka ezartzeko azken baliabide gisa.



7) Diru laguntzen kudeaketan prozedura azkartzeko eta aurrekontuaren kudeaketa aurreratzeko, aukera ematen da diru laguntzak aurretik izapidetzeko. Hala, diru laguntzak emateko deia diru laguntzak ebatziko diren aurrekontuko ekitaldia baino ekitaldi bat lehenago onartu ahal izango da, betiere gastua egiten bada diru laguntza ematen den urtean eta baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

- a) Udal Aurrekontuan normalean egotea kreditu egoki eta nahikoa egin nahi den gastua aurrekontuarekin ordaindu ahal izateko.
- b) Kreditu egoki eta nahikoa egotea gastua egiten hasi behar den ekitaldiari dagokion Udal Aurrekontuaren Proiektuan.

Kreditua badagoela egiaztatzeko agiriaren ordezt, Aurrekontu Zerbitzuak txosten bat egingo du eta bertan aditzera emango du aurreko baldintzetako bat betetzen dela.

Izapide aurreratuak egiten direnean, deialdian ageri den gehieneko guztizko zenbatekoa gutxi gorabeherakoa izango da eta, hortaz, deialdian berariaz adierazi behar da diru laguntzak emango direla baldin eta kreditu egoki eta nahikoa badago diru laguntzak emateari buruzko ebazpena hartzen denean. Onartutako aurrekontuko kreditua aurreikusitakoa baino handiagoa bada, organo kudeatzaileak erabaki ahal izango du deialdiari aplikatzen zaion ala ez, ebazpena hartu aurretik gastua onartzeko espedientea bideratu eta gero, beste deialdirik eginOnartutako aurrekontuko kreditua aurreikusitakoa baino handiagoa bada, organo kudeatzaileak erabaki ahal izango du deialdiari aplikatzen zaion ala ez, ebazpena hartu aurretik gastua onartzeko espedientea bideratu eta gero, beste deialdirik egin beharrik gabe.

22. Artikulua: Inbertsioak

Espedientean honako dokumentu hauek jasoko dira:

- a) Aurrekontua, kostu osoaren berri emanda.
- b) Baldintzen orriak.
- c) Aurrekontu erabileraren proposamena.



IV. KAPITULUA: JUSTIFIKATU BEHARREKO ORDAINAK, KUTXA FINKOAREN AURRERAKINAK ETA AURRETIKO ORDAIN APLIKATU GABEAK

23. Artikulua: Justifikatu beharreko ordainak

Justifikatu beharreko ordain aginduak emango dira beharreko erosketak eta zerbitzuak erosteko, horrelakoak ezin badira ordaindu kutxa finkoaren aurrerakinen bitartez eta ezin badira egiaztagiriak eskuratu erosi aurretik.

Gastua baimentzeko organo eskuduna izango da justifikatu gastua onartu behar duen berbera.

Gastua justifikatu beharko da hartutako dirua erabili bezain laster eta, nolahi ere den, dirua jaso eta 3 hilabeteko epean, ekitaldia itxi aurretik.

Dirua zaintzeaz onuraduna bera arduratuko da.

Ezingo da justifikatu beharreko ordain agindu berririk eman aurrekontu kontzeptu berberak direla-eta onuradunak oraindik justifikatu beharreko dirurik izanez gero bere esku justifikatzeko gehienezko epea gainditu duela horren gaineko konturik aurkeztu gabe.

Kontabilitate Atalak errolda batean jasoko ditu justifikatu beharreko gastuak, eta zerrendan onuraduna, kantitatea, helburua eta justifikatzeko azken eguna agertuko dira.

Interbentzioak honako hauek fiskalizatuko ditu eginiko gastuetan:

- » Kontratazio arauak bete izana, arauzko atxikipenak egin izana, BEZ eta beste zerga batzuk behar bezala aplikatu izana eta abar.
- » Egiaztagiriak jatorrizkoak izatea eta aurrerakina baimentzeko adierazitako gastuekin bat etortzea.
- » Justifikazioa alorraren zuzendariak edo ordezkariak onartu izana.
- » Arauzko epean justifikatu izana.

Interbentzioak lehendakariari adieraziko dio zeintzuk diren behar bezala egiaztatu gabeko kontuak, erantzukizuna ez ezik, dirua itzultzeko ere eska dezan beharrezkoa izanez gero.



24. Artikulua: Kutxa finkoaren aurrerakinak

Dieta, lokomozio, ikastaro, atezainaren fondo eta antzekoetarako aldiroko gastuetan, justifikatu beharreko gastuak Kutxa Finkoaren aurrerakin gisa eman daitezke.

Orokorrean, kutxa finkoaren aurrerakintzat joko dira presazko beharretarako egiten diren diru hornidurak, geroan ekitaldiko aurrekontuan jasotzekoak direnez gero.

Horrelakoak baimentzeko organo eskuduna izango da gastua baimentzeko organo eskudun bera.

Kutxa finkoaren aurrerakinak ordainduko dira Diruzaintzaren kontutik.

Kutxa Finkoko Aurrerakinak jasotzen dituztenek, beren diruzaintza baliabideak gutxitu eta berriz jartzea zentzuzkoa denean justifikatuko dituzte egindako gastuak, gehien-gehienez, aurrekontu ekitaldia amaitu aurretik.

Fondoak berriz jartzeko Ordainketa Aginduak egingo dira justifikaturiko kopuruei dagozkien aurrekontuko kontzeptuetan oinarrituta.

Onuradunak berak du jasotako dirua zaintzeko ardura.

Ekitaldi bakoitzaren abenduaren 31n Fondoan Interbentzioak fiskalizatuko du kutxa finkoaren aurrerakinaren egoera eta horretarako aztertuko ditu egun horretara arte aurkeztutako gastu egiaztagiriak, kontu korrontearen estraktu eguneratua eta jasotzailearen adierazpena, oraindik dirurik baduelakoa.

26. Artikulua: Aurretiko ordain aplikatu gabeak

Aurretiko ordain aplikatu gabeak emango dira egin beharreko gastuak hainbat aurrekontu sailetan jaso behar badira, ordaina emateko unean nola banatuko den jakiterik ez dagoela.

Talde horretan jaso behar dira udal langileei ikastaroetara joateko emandako aurretiko ordainak, aurretik emandako zenbatekoak barne hartzen dituela ikastaroaren matrikula, dietak, bidai gastuak eta abarrak.

Gastua justifikatu ostean aurretiko ordaina arautzeari ekingo zaio.

Gastua baimentzeko organo eskudun izango da aurretiko gastua baimentzen duen berbera.

Gastua justifikatu beharko da hartutako dirua erabili bezain laster eta, nolnahi ere den, dirua jaso eta hiru hilabeteko epean, ekitaldia itxi aurretik.



Jasotzailea bera arduratuko da dirua zaintzeaz.

Kontabilitate Atalak aurretiko ordainen errolda eratuko du eta bertan zerrendatuko dira jasotzailearen izen-deiturak, emandako kantitatea, xedea eta justifikatzeko azken eguna.

Interbentzioak lehendakariari adieraziko dio zeintzuk diren behar bezala egiaztatu gabeko kontuak, erantzukizuna ez ezik, dirua itzultzeko ere eska dezan beharrezkoa izanez gero.

V. KAPITULUA: OBLIGAZIOAK IRAUNGITZEA

26. Artikulua: Obligazioak iraungitzea

Udalak halako onuradun jakin baten alde onartutako obligazioak ordaindu beharra 5 urteren ondoren iraungitzen da.

Interbentzioak, obligazioak iraungi ahala, iraungitzeko proposamena aurkeztuko du, espedientean horren gaineko egiaztagiria jasota.

Ogasuneko Ordezkariek onartu beharko ditu obligazio iraungiak.



III. TITULUA: SARRERENA

27. Artikulua: Udal Diruzaintza Publikoa

Udal Diruzaintza Publikoa osatzen dute Udalaren finantza baliabide guztiek, aurrekontu barneko zein kanpoko eragiketen ondoriozkoek.

Udal Diruzaintza Publikoa arautuko da kutxa bakarraren hastapenaren bitartez.

Hilabete bakoitza amaitu eta ondorengo hamar egunotan Udal Diruzaintzako fondoak kontatuko ira kontu-hartzaileak fiskalizatuta eta Ogasuneko Ordezkariek baimendurik.

Ez da aurrekontu barneko zein kanpoko fondorik sartuko kontu-hartzailearen ohartemandako arazko kontabilitate dokumenturik gabe.

28. Artikulua: Diruzaintza plana

Udal Diruzaintzak egin behar du urteko diruzaintza Plana.

Diru baliabide likidoak gestionatuko dira ahalik eta etekinik handiena lortzea irizpide dela, nolana ere den beti bermaturik egongo dela obligazioen epemugak betetzea.

Aurrekontua erabiltzerakoan lorturiko etekinak erabiliko dira obligazio guztiak asebetetzeko. Halako xede jakin baterako sarrera bereziak eta aurrekontuz kanpokoetarakoak arautzeko kutxa bakarraren hastapena erabiliko da, gastu aurrekontua gauzatzekoan baliabideen xedea ez bereizteko moduan. Sarreraren xedea agerian utziko da likidazioan.

29. Artikulua: Diru sarreraren gestio faseak

Sarrera aurrekontua gestionatuko da, gehienez ere, honako fase hauek kontuan:

- a) Sarrera konpromisoa.
- b) Eskubideak aitortzea.
- c) Onartutako eskubideak kobratzea.



30. Artikulua: Dirua sartzeko konpromisoa

Horrelako ekintzaren bitartez erakundea edo pertsona publikoak zein pribatuak bere burua behartzen du udalarekin akordio edo hitzarmen bidez halako gastu jakin bat osorik ala alde ordaintzera.

31. Artikulua: Eskubideak aitortzea

Horrelako ekintzaren bitartez udalaren aldeko eskubide bat ordaintzen da sarrera bakoitzaren arau berezien arabera.

Errolda bidez gestionatzen diren sarreretan eskubide aitortpena kontabilizatuko da errolda behin betiko onartua Zerga Biltegira kobratzera bidaltzen denetik.

Gainerako zerga, prezio publiko eta bestelako sarreretarako, eskubide aitortpena kontabilizatuko da Zerga Biltegira kobratzera bidaltzen denetik.

Autolikidazioetan eta aurretiko zorpetzerik gabeko bestelako sarreretan eskubidea aitortuko da zenbateko sarera kontabilizatzen den unean.

Dirulaguntzetan eta transferentzietan eskubidea aitortuko da xedaturiko baldintza guztiak beteta, dirulaguntza eta transferentziak exijitzeko modukoak izatean.

32. Artikulua: Onartutako eskubideak ordaintzea

Horrelako ekintzaren bitartez lehendik edo batera aitortutako eskubidea ordaintzen da Diruzaintzan sartuta.

Udal baliabideak sartuko dira zerga ordenantzak, Zerga Bilketako Ordenantza Nagusia, indarreko lege xedapenak eta udalak hartutako erabakiak kontuan.

Aldian-aldian kobratu beharreko zerga eta prezio publikoen egutegia izango da Zerga Bilketako Ordenantza Nagusian adierazitakoa.

Ez da erroldako guztiei banaka zertan jakinarazirik izango zerga gehitzen bada oinarriak edo tipoak gehitzea oro har erabakitzearen ondorioz.



Zergak biltzeko ordezkariak

- a) Ordezari izendatu da banakoek estazionamendu mugatuko aldetzat zedarritutako jabari publikoa erabiltzeagatiko tasaren autolikidazioa kobratzeko gestioaz arduratutako enpresa.
- b) Ordezari izendatu da ibilgailuak bide publikotik garabiaz eraman eta gordetzeko ardua duen enpresa garabi zerbitzua eta ibilgailuak udal ibilgailuen gordailuan zaintzeko zerbitzuagatiko tasaren autolikidazioa kobratzeko gestioak egiteko.

Billetaz Diruzaintza arduratuko da eta berak egiaztatu beharko du zerga bilketaz indarrean diren arauak betetzen direla.

33. Artikulua: Kreditu eragiketak eta bermeak emateko mugak

1) Maileguak

Ogasuneko Ordezariak ahalmena du finantza erakundeetan kredituak gestionatzeko, Aurrekontuko inbertsio programak finantzatzeko beharrezkoa izanez gero.

Kreditu eragiketak Sektore Publikoko Kontratuen Legean arautzen ez direnez gero, prestatze eta esleitze aldiek honako izapideak bete beharko dituzte:

- » Eskaintzak eskatuko zaizkie gutxienez 5 kreditu erakunderi.
- » Diruzaintzak eta Interbentzioak aurretik txostena emanda, Finantza Zuzendaritzak proposamena bidaliko dio eskudun udal organoari.

Hipoteka maileguak izanez gero, interes tipo moduan ezarriko da horrelako mailegu motari dagokiona.

2) Interes tipoa babesteko eta arriskua gestionatzeko eragiketak

Ogasuneko Ordezariak ahalmena du interes tipoa babestu eta arriskua gestionatzeko ezein kontratu negoziatu, adostu eta izenpetzeko.

Kontratazio espedienteak osagarri eraman beharko ditu Diruzaintzaren eta Interbentzioaren txostenak, txosten bakarrera bil daitezkeen arren.

Hitzartutako eragiketen berri eman beharko dio Udalbatzari.



3) Diruzaintza eragiketak eta epe laburreko maileguak

Maileguetarako adierazitako irizpide berak ezarriko dira, epearena izan ezik, gehienez urtebetekoa izango da eta.

4) Bermeak ematea

ETXEGINTZA enpresa erakunde publikoari ekitaldiko aurrekontuetan adierazitako kopuru gehienezkoa jo arteko bermea emateko ahalmena ematen zaio Tokiko Gobernu Batzarrari. Hortik gora pasatzen diren bermeak Udalbatzak eman beharko ditu.

Ez da beste inolako erakundeari bermerik ematerik aurreikusi. Eman beharrik bada, hartarako egin behar den espedientea egin eta Udalbatzari bidali beharko zaio.

34. Artikulua: Berandutza interesak eta lehentasunezko interesa

Orokorrean, berandutza interesa Foru Zerga Arauan ezarritakoa izango da. Arau horrek ez badu ezartzen, legezko interesa %25etan gehituta izango da.

Zerga Bilketako Ordenantza Nagusian adierazitako lehentasunezko interes tipoa, diruaren interes legala $-0,25\%$ a izango da.

Interesak kalkulatu eta ordainduko dira zorraren printzipala ordaintzeaz batera. Bahituriko ondasunak edo bermeak gauzatu nahi izanez gero, interesak kalkulatu eta diru eskubidea kito egin ondorengo likidazioaren gainean. Dirua edo kontu korrontek bahiturik egonez gero, interesak kalkulatu eta hartuko dira bahitzeaz batera.

35. Artikulua: Diru sarrerak kontabilizatzea

Udalak jaso beharreko sarrerak gauzatu eta diru halako aurrekontu kontzeptu jakin baterako sartzeko agiriaren bidez, Interbentzioak dirua sartu dela egiaztatukoan gauzatu dela.

Sarrerak edozergatik ezin badira kontabilizatu beren aurrekontu kontzeptuan, aplikatu gabeko sarrera moduan kontabilizatu eta ondorio guztietarako, kutxa bakarrean gordeko dira.

Departamentuek informaziorik izanez gero dirulaguntza ematearen gainean, Udal Diruzaintzari edo Interbentzioari jakinaraziko diote, horren bilakabidearen jakitun egon daitezen unean-unean. Dirulaguntzak departamentuek eurek justifikatu beharko dituzte eta Interbentzioa jakitun jarriko ere bidalitako egiaztatze dokumentuak direla eta.



Diruzaintzak kontrolatu beharko du Kontabilitateak aztertu gabeko kontu korronterik ez egotea, zerga bilketako kontu murriztuak salbuespen direla.



IV. TITULUA:AURREKONTUA LIKIDATZEA

36. Artikulua: Gastuen egoerako aurretiko eragiketak

Ekitaldia amaitutakoan egiaztatu beharko da obligazio aitortpena sortzen duten udal erabaki guztiek kontabilitateko “O” fasean jasota daudela.

Emandako dirulaguntzak ordaintzea halako baldintza batzuk betetzearen menpean egonez gero, “O” fasean kontabilizatu beharko dira, dirua jasotzea baldintzaturik egongo dela baldintza horiek guztiak bete arte.

Oro har, abenduaren 31 arteko erosketa, obra, zerbitzu edo gastuetako obligazioak ekitaldian jasoko dira hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 31 baino lehen onartuz gero.

Aurrekontu ekitaldiko azken egunean onartutako obligazioak betetzearen menpean ez diren kredituak baliogabeturik geratuko dira, salbuespen bakarra izango dela Araudi honetako 12. artikulua.

37. Artikulua: Sarrerren egoerako aurretiko eragiketak

Abenduaren 31 arte aitortutako eskubide guztiak likidatu beharreko aurrekontuan erabili behar dira

Aurreko artikulua araberako aitortutako obligazioek onartutako mailegu gauzatu edo erabili gabekoetako dirua behar izanez gero, ekitaldian kontabilizatzea dago aitortutako eskubideetatiko behar besteko zenbatekoa.

38. Artikulua: Ekitaldia likidatzea

Ekitaldia itxiko eta likidatuko da ondorioak abenduaren 31n kokatuta.

Likidazioaren egoera-erakusleak hurrengo urteko martxoaren 11 baino lehenago egin behar dira.

Alkateak onartuko du likidazioa eta Ogasuneko Batzordea jakitun jarri beharko du hurrengo osoko bilkuran.



39. Artikulua: Diruzaintzako soberakina

Barne izango du fondo likidoak eta kobratzeko dauden eskubideen batuketa, horri kenduko zaiola ordaintzeko dauden obligazioen eta nekez gauzatuko diren eskubideen zenbatekoa.

Nekez gauzatuko diren gastutzat joko dira bi urtetik gorako antzintasuna dutenak, eskubidearen edo zordunaren ezaugarriek bestelakotzat jotzea justifikatu ezean.

Zerga-biltzaileak dauzkan eskubide kobratzekoak hornitu beharko dira kaudimen gabeziatarako fondo batez, Zerga Bilketak proposaturiko irizpidearen arabera, aurreko ekitaldietako informazioa oinarri.

Diruzaintzako soberakina aldekoa bada, hurrengo ekitaldiko kreditu aldaketak finantzatzeko erabil liteke.

Diruzaintzako soberakina positiboa izanez gero, gasturen bat liquidatzen den ekitaldian kontabilizatu ezinean gelditu bada kreditu nahikorik ezean, gauzatu litezkeen bestelako administrazio izapideak gorabehera, ekitaldi likidatzeaz batera edplikidatu ondoren, diruzaintzako soberakinaz finantzatu beharreko aurrekontu aldaketa berezia egingo da, Interbentzioak aurretik txostena emanda, Alkateak onartuta eta Ogasuneko Batzordea jakitun jarrita.

Diruzaintzako soberakina negatiboa bada, Interbentzioaren txostena jaso ondoren, Ogasuneko Ordezkariek proposatuko dio Udalbatzari nolako neurriak hartu finantza oreka berriro lortzeko.



V. TITULUA. PLANTILLA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA

40. Artikulua: Edukia, eskumena eta mugak

Aurrekontuan jasotako plantillak funtzionarioentzat, lan kontratupekoentzat eta behin-behineko langileentzat erreserbatutako lan postu guztiak biltzen ditu, behar bezala sailkatuak eta aurrekontuan diru-izendapena dutela.

Lanpostuen zerrendak postu guztiak biltzen ditu, honakoak zehaztuta: izena, mota, betetzeko sistema, ordainsariak eta postua betetzeko betekizunak.

Honakoak dagozkio Gobernu Batzarrari:

- a) Lanpostuen zerrenda onartu eta aldatzea.
- b) Plantilla aldatzea, baldin eta horrek berekin ez badakar ekitaldiko gastu arrunta handitzea.

Udalbatzari dagokio plantilla aldatzea, baldin eta aldaketa horrek ekitaldiko gastu arrunta handitzea badakar berekin. Hasierako onarpena eman ondoren, aurrekontua hasiera batean onartzeko ezarritako izapide berak bete beharko dira.



LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA: AKORDIO EDO HITZARMEN LEHIAKETAK

Alkateak berak gauzatu behar ditu Prozesamendu Zibilaren Legean eta Paguak Etetearen gaineko Legean xedaturiko lehiaketetako udal akordio edo hitzarmenak.



BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA: INFORMAZIOA

Udal taldeek noiznahi eskura dezakete aurrekontu balantze jatorrizkoaren aldakia. Ogasun Batzordean balantzea hiru hilean behin azter daiteke.



AZKEN XEDAPENA

Alkatetzak ahalmena du behar beste ebazpen emateko honako Arau hau garatu eta argitzeko.